



LIBURUA

# Kritikaren komunitateaz



DANI BLANCO

## BABEL AURRETIK

EGILEA: JOSEBA GABILONDO  
ITZULTZAILEA: AMAIA  
APALAUZA OLLO

TXALAPARTA, 2020

### IBAI ATUTXA ORDEÑANA

**B**i ekarpen egin zaizkit bereziki zirrargarriak Joseba Gabilondoren azken liburuan. Izan ere, iruditu zait egungo eztabaida kritikoeekin aurre-eragiten lagun dezaketela.

Bata. *Babel aurretik*-ek ahalbidetzen du euskararen diglosia pentsatzea modernitate goiztiarreko berrantolatze kapitalistaren baitan. Hortaz, Silvia Federicik feminismotik eta Cedric Robinsonek arrazaren teoria kritikotik egin antzera jarduten du. Hau da, Marxen *Kapitala* euskal kokagunetik eguneratzen hastea egiten du posible. Gatazkak eta matxinadak txirikordatzeari ekin nahi diogun honetan, hortik tira egitea izan daiteke klabeetako bat.

Besteia. *Materia Vasconica* kontzeptuak Edward Said pentsalari pales-

tinaren estatubatuarraren *Orientalismo* terminoaren eran funtzionatzen du, baina gurera ekarrita. Hau da, euskal diferentziari buruzko diskurtso multzoari erantzuten dio kontzeptuak. Jatorri, imperialismo, fede, modernitate, etnizismo eta exotismoek, denek ala denek era soinu-bakar zein kakofonoetan osatu dute *gu*-aren esangura gatazkatua. Gabilondok *Materia Vasconica* birpentsatzea proposatzen digu.

Liburuan noski, beste ideia interesgarri asko daude. Adibidez, autoreak post-nazionalismoaz dihardu baita *Babel aurretik*-en ere. 90eko hamarkadatik hona lantzen aritu den kontzeptua izanik, jadanik aski eztabaidatuta egon beharko lukeela iruditu zait eta ez da hala izan. Pixka bat historizatzeak merezi du.

80ko hamarkadaren bukaeran eta 90eko hamarkadan zehar lan fundatzaileak argitaratu zituzten literatur kritikarien belaunaldiaren parte da Gabilondo. Belaunaldikideek lanak batez ere gaztelaraz argitaratu zituzten; Gabilondok, batez ere, ingelesez. Belaunaldikideek Euskal Herriko Unibertsitateko botereguneak hartu zituzten; Gabilondok berriz, 2006ra arte itxaron behar izan zuen lana euskarara itzulita argitaratzeko. Kokagune estrategikoa beste bat zen: AEBetako akademia.

Posible da oker egotea, baina elkarrekin gutxi eraiki zuen belaunaldia iruditzen zait hura. Izango ote gara gai behingoz eztabaida kritikorako komunitatea sortzeko. ●